



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko urriaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari gomendatzen zaizkio "Auzolandegiak" programaren datozen deialdietan plazak esleitzeko sistema hobetzeko neurriak.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo zuen Eusko Jaurlaritzako Gazte Zuzendaritzak urte honetarako deitutako atzerriko auzolandegietan plazak esleitzeari dagokionez burututako jarduerarekin ados ez zegoelako.

Erreklamatzailleak azaldu zuenez, bere semea eskainitako plazetako bat lortzen saiatu zen. Deialdiaren baldintzen arabera, plaza horiek maiatzaren 4ko 9:00etatik aurrera -izena emateko epea ireki zen unetik aurrera- Internet bidez erreserbatu ahala beteko ziren. Eskola-orduak zirenez, semea, adin horretako gazte gehienak bezalaxe, ordu horretan eskolan zegoen. Ondorioz, bere ustez, deialdiaren baldintzek oztopoak jartzen zituzten hartzaileek euren kabuz -hau da, hirugarrenen laguntzarik gabe- prozedura burutu ahal izateko eta, gertatutakoa ikusita, toki jakin batzuetara heltzeko aukerak izateko prozedura hori ezinbestekoa zen: izena epea zabaltzen den unean bertan ematea, hain zuzen.

Gauzak horrela, aipatutako zailtasuna dela-eta, interesduna bera arduratu zen bere semearen eskabidea bidaltzeaz, mutilak Galesera edo Copenhaguera joan nahi baitzuen uztailean, ingurumenari buruzko auzolandegi batera. Erreklamatzailleak adierazten zuenez, erreserba azkar burutu ahal izateko, maiatzaren 4an lagun baten etxera joan zen, haren ordenagailuak bereak baino potentzia gehiago baitzuen, eta bertan probak egin zituen goizeko lehen ordutik programarekin ohitzeko. Gauzak horrela, adierazi zuen moduan, sisteman sartu eta eskatutako datuak abiadura bizian idatzi ondoren, 9:01ean erreserba- eskaera bidaltzeko prest zuen. Kexak azaltzen zuenez, harrিতuta ikusi zuen ordu horretarako jada ez zegoela helburu horretarako plazarik. Horrez gain adierazten zuenez, 9:04an, eskainitako eremuetarako dagoeneko plazarik ez zegoela egiaztatu zion Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako pertsona batekin hitz egin ondoren, eskari berria egin zuen toki eta hilabete gehiago hautatuta, baina plaza gehienak hartuta zeuden.

Erreklamatzailleak zalantzan jartzen zuen plaza guztiak deialdian ezarritako prozedurari jarraiki esleitu ote ziren eta, gertatutakoa ikusita, horietariko batzuk alde zuzenetik pertsona jakin batzuei esleituta egon zitezkeela pentsatu zuen.



Nolanahi ere, esleipenerako jarraitutako ordutegi eta irizpideekin ados ez zegoela adierazi zuen, eta sistema bidezkoago gisa, izena ematen zutenen arteko zozketa bat egitea edo merezimendu bidezko sistema bideratzea proposatzen zuen.

2. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari kexa adierazi ondoren, horren inguruan zituen gogoetak helaraz ziezazkigun eskatu genion, baita hurrengo deialdietan proposatutako moduko irizpideak gaineratzeko erabilgarritasuna ere. Halaber, zehazki honako honen berri eman ziezagun eskatu genion:

- a. 2011-05-04an erreklamatzailak aipatzen zuen eskaera sartu zen ordua.
- b. Zenbat plaza libre zeuden erreklamazioak aipatzen zituen auzolandegietarako.
- c. Auzolandegi horiek lortu zituzten pertsonen kopurua eta zein ordutan egin zuten eskaria.

3. Sailak esleipen prozesuaren erregulazioa azalduz erantzun zuen, 2011ko apirilaren 20 Aginduan bildutako hitzetan, maiatzaren 3ko EHAAn argitaratuta. Aginduak adierazten duenez, eskainitako plaza kopurua aldagarria izango da eskaerak aurkezteko epea irekitzen denetik, plazak erreserbatu ahala gutxika ezabatuko baitira eta eskaintzan aldi baterako plaza berriak gaineratuko baitira. Informazioa [www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net) atariaren bidez, gazte informaziorako zerbitzuen bidez eta Kultura Saila eta bere lurralde zerbitzuen bidez eskuratu ahalko da, eta plazak bide horietan guztietan azaldu eta eskatuko dira, bai atari horretako aplikazio informatikoa erabiliz, bai aurrez aurre.

Izan ere, horrela xedatzen du aipatutako aginduak, nahiz eta sailak adierazitako web orriak, erakunde honek egiaztatu ahal izan zuen moduan, ez zuen azaltzen plaza aurrez aurre eskatzeko aukera. Erreserba bideratzeko moduari buruzko informazioak internet bidez burutu behar zela besterik ez zuen aipatzen, izena emateko eskabidearen bidez, eta interneterako konexiorik ez zutenak KZgunea sareko zentroetara bidaltzen zituen.

4. Eskatutako berriazko informazioari dagokionez, sailak aipatzen zuenaren arabera, erabilitako aplikazio informatikoak plaza erreserbatzen duten pertsonen sarrera bakarrik biltzen du, beraz ezin dute ezagutu gainontzeko eskaeren sarrera-ordua. Galesen plaza bat zegoela adierazten zuen, 9:08an erreserbatu zutena, eta beste bat Copenhagen, 9:09an erreserbatuta. Sailaren idazkia honako hau adieraziz amaitzen zen:





*“Azkenik, adierazi nahi dizugu jakin badakigula plazak esleitzeko sistema ez a dela perfektua -beste autonomia-erkidegoetan erabiltzen denaren antzekoa bada ere- eta gure nahia Auzolandegiak programa - Euskal Autonomia Erkidegoan 20urtetik gorako ibilbide luzea duena- hobetzen jarraitzea dela. Hori dela-eta, datorren urteko deialdiari begira, iradokitako irizpideak sartzeko aukerak eta komenigarritasuna aztertuko dugu, betiere gazte guztiak programara berdintasun-baldintzetan sartu ahal izan daitezzen.”*

Erantzun hori jasota, Arartekoak bere esku hartzeari amaiera ematea erabaki du honako gomendio hau emanez. Gomendioa ondoko gogoetetan oinarritzen da.

### Gogoetak

1. Horrelako programetan ohikoa da plazen eskaintza, batez ere helmuga jakin batzuetarako, urria izatea eskaria betetzeko. Halako egoeretan beharrezkoa izaten da esleipen sistema bat arautzea, sailak ongi aipatzen duen moduan, eskatzaileen arteko berdintasuna bermatzeko helburua izan behar duena. Helburu hori, gure ustez, irizpide bikoitza dauka botere publikoek alor horretan duten jardueraren kalitatea baloratzeko: alde batetik, sistemaren diseinua egokia izan behar da deialdian interesa duten pertsona guztiek baldintza berdinak izan ditzaten nahi dituzten plazak eskuratzeko; bestalde, plaza jakin bat pertsona bati eta ez beste batzuei esleitzeko jarraitutako irizpideak ez daitezela bereizketa arbitrarioaren pean erori.
2. Kexan hizpide izan dugun esleipen prozesua arautzen zuen aginduak, hirugarren aurrekarian adierazi dugun moduan, inskripzioa argitaratu eta hurrengo egunean hasiko zela xedatzen zuen. Egia da berehalakotasun horrek ez duela hautagaien arteko diskriminaziorik eragiten, guztiengan eragin bera baitu. Baina kontuan hartuta, erregulazio berak xedatzen zuenaren arabera, eskuratu nahi zen helmuga lortzeko aukera azkar eskatzearen mende egongo zela, betiere eskura zeuden plaza kopuruaren arabera, sistema bidezkoagoa litzateke aldez aurretik zenbat eta interesdun gehiagok eskaintza ezagutzen dutela bermatuko balitz. Beraz, ondorio horietarako, desiragarria litzateke eskaintza argitaratzen denetik izena emateko epea irekitzen den arte arrazoizko tartea igarotzea, hortaz, hori izango da gure lehen gomendioa.
3. Bestalde, lehentasunerako irizpidea izena emateko azkartasuna baldin bada, ez dirudi inskripzioa eskola orduetan hastea egokiena denik deialdiaren hartzaileen artean berdintasuna bermatze aldera, horietako asko ikasle gazteak baitira. Hala izanik, ordu horretan klasean egotea ohikoa da, eta horrek oztopo



objektiboa sortzen du izena emateko agiria betetze aldera. Alderdi hori kontuan hartuta, eta sailak eskainitako datuen arabera, kexak aipatzen zituen plazak lortu zituztenek eskatu zituztela ikusita, honako ondorio hau atera dezakegu: lortu nahi zen plaza eskuratzeko aukerak nabarmenki handitzen edo txikitzen ziren eskaera haien izenean egin zezaketen senideak edo lagunak izatearen arabera, edo sarean sartu ahal izateko eskolak ekipo informatiko bat eskaini edo klasera joateko beharraz salbuetsi izanaren arabera. Argi dago pertsona guztiek ez dituztela aukera berak zentzu horretan, eta hori hautagai jakin batzuen merezimendu zehatzen eta kasuaren baldintza espezifikoaren arabera ez den baztertzeko faktore bat da, sistemaren diseinuaren egituraren ondorioa besterik ez da. Ondorio hori saihestu zitekeen, gomendatu dugun moduan, plazak eskaera egiten duten pertsona guztien arteko lehiaketa bidez esleitu balira horretarako egokitutako epe batean, bai ausazko irizpide bati jarraiki, bai merezimendu bidezko hautaketa eginez.

4. Proposatzen den moduko sistema batek, gainera, hizpide dugun kasuak adierazi duen beste hutsuneetako bat gainditzeko lagunduko luke. Izan ere, edozein metodo erabilita ere, sistemaren diseinuak aukera eman behar du, ustezko erreklamazioen aurrean, egindako plazen esleipenak oinarrietan iragarritako hautaketa-irizpideari erantzuten diola egiaztatzeko. Horren bidez, alor horretan botere publikoaren jardueraren kontrola lortu nahi da, baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 3.5. artikuluan xedatzen duen gardentasun printzipioa bete ere.

Egiaztapen hori eraginkorra izan dadin, hala ere, beharrezkoa da eskainitako plazaren bat hautatu zuen pertsona orok egiaztatu ahal izatea, bere eskaerak sisteman bertan utziko duen trazaren bidez, zein punturaino betetzen ziren bere kasuan deialdian ezarritako esleipenaren oinarriak. Horren bidez, desadostasunen bat egotekotan, jarduten duen administrazioak horren inguruan eskainitako datuak alderatu ahalko dira (gauzak horrela, adibidez, ausazko sistema batean zozketaren emaitza eta hautagai guztiek bertan sartu zirela bermatzea posible izan beharko da; merezimendu bidezko batean, hautagaitza bakoitzaren inguruan zeintzuk hartu ziren kontuan, horien puntuazioa eta ondorio horietarako erabilitako baremoa).

Hizpide dugun deialdian, eskainitako plazak eskuratzeko aukera eskuragarritasunak zehazten duen, hautagaiek *on line* erreserbatu ahala desagertzen zihona. Horretarako, izena emateko agiri bat bete behar zuten. Laugarren aurrekariak azaltzen duen moduan, sailak jakinarazi zigun erreklamatzailen semeak lortu nahi zituen helmugetarako eskuragarri zeuden bi plaza bakarrak erreserbatu ziren, hurrenez hurren, izena emateko epea ireki



eta zortzi eta bederatzi minutu igaro ondoren. Berak ordea, 9:01ean, saiatu zenean, plaza horiek eskatzeko aukerarik ez zegoela adierazi du eta 9:04an Gazteriako Zuzendaritzak berak telefonoz baieztatu ziola, betiere kexaren arabera, helmuga horiek jada eskuragarri ez zeudela.

Argi dago errealitate beraren bi bertsioak bateraezinak direla, eta desberdintasuna eskaintako plazen eskatzaileen arteko lehentasun ordena zehazten zuen elementu faktikoaren inguruan datzala, horietako bakoitzak nahi zuena erreserbatzen saiatu zen ordua, hain zuzen. Sistemak, berriz, ez du datu hori kontrastatzeko aukerarik ematen, argudiatu dugun moduan desiragarria izango zen arren, sailaren erantzunaren arabera, eskuragarri zeuden helmugetakoren bat lortu zuten eskaerei dagozkien sarreren berri besterik ez baitago. Beraz, ezin dugu esan, kexan azaltzen zen moduan, plazak deialdiaren sisteman ezarritako hautamen irizpide eta prozedura kontuan hartu gabe esleitu direnik. Baina, arrazoi bera dela-eta, sistema goian azaldutako zentzuan aldatu behar da, berdintasun eta botere publikoen jardueraren gardentasun printzipioen inguruan sortzen dituen disfuntzioak saiheste aldera. Sailak berak adierazi duenez, jakin badaki sistema hori akastuna dela, eta horrek hobetze aldera eskaini dugun gomendioak aldeko harrera izango duela pentsatzera bultzatzen gaitu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### **43/2011 GOMENDIOA, urriaren 20koa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari egina**

- "Auzolandegiak" programaren datozen deialdiei begira, plazen esleipenaren prozesua arautzen duen agindua argitaratzen denetik izena emateko epea ireki arte, arrazoizko tartea igaro dadin eskaintza ahalik eta interesdun gehienek ezagut dezaten.
- Eskaintako plazak lehiaketa bidez esleitu daitezten, helburu horretarako ezarritako epean eskatzen dituzten pertsona guztien artean eta irizpide zehatza jarraiki, ausazkoa zein merezimendu bidezkoa izan.